

**BIDEZIDOR KIROLEKO  
ARGAZKIAK ETA  
KRONIKATXOAK 7**

**Igeldo (kanpina)-Txakurtegia-Aginaga-Usurbil (2018-09-21)**

**Monte Accutus (Mendizorrotza)  
Monteagudo ote da?  
Monte Draconis (herensugea)  
gaur Arrasate omen da.  
Hemen zenbaitek hartuta dauka  
sasi-maisuen tankera,  
piperra bildu balute hobe  
beltz- talde honen antzera.**

**(2016-07-15)**

**Malda beherako ibilbidean  
bagoaz Oria aldera,  
Zubietako bidea itxiz  
ezin heldu Lasartera.  
Beltz-gazte hauek osatzen dute  
iazko talde berbera,  
beren herritik etorri dira  
piperminak jasotzera.**

**(2017-08-11)**

**Udazkenaren hasiera da  
hezetasun oparoan,  
pinudi hauei gaitza dutela  
sumatzen zaie hostoan.  
Dotoreago jartzen badute  
haritza edo basoan,  
dagokiona jarriz gero  
iraungo du luzaroan.**

**(2018-09.21)**

**Piperrak biltzen baziren beltzak  
beste urtetan bezala,  
begirunea izango dute  
hor lanean dabiltzala.  
Atzerritarren egoera hau  
ez da inondik makala,  
aspaldidanik utzi baitute  
beren amaren magala.**

**(2018-09-21)**



**Igeldoko kanpinaren ingurutik igarotzen, abiapuntu gisa**



**Igeldoko kanpinaren inguruan**



**Tropela txakurtegiko bidegurutzerantz abiatuz**



**Igeldoko kanpinan, ibilaldiaren hasieran**



**Usurbilen, hamaiketakoa hartu ondoren**

**Urkillaga-Leizadi-Urkillaga (2018-09-25)**



**Batzordekideak eta aitzindari goierritarra mendatean**



**Ea nork esaten duen hau ez dela guztion buruzagia!**



**Bi hauek mendatean ahoa irekirik, hamaiketakoaren zain edo**



**Izadi edo natura bere edertasun oparoan**



**Jentil Barataranz begiratzten aspertu gabe**

**On Joxe Miel sumatzen dugu  
lagunekin ikerketan,  
Jentil Baratzan eta Leizadin  
ia leku guztietan.  
Pertsona hori miresgarria  
egiten zaigu benetan,  
bere lanaren ondorioa  
hor dago liburuetan.**

**Euskal herriko mendi gehienak  
ikusten dira hemendik,  
sari polita jaso baitugu  
goierritar hauengandik.  
Pagadi eder, larre ederrak  
eta dotore inondik,  
gure jendea zoratuko da  
alderdi hau ikusirik.**

**Errenteria-Zamalbide-Txoritokieta-San Marko-Lau Haizeta-Altza (2018-09-28)**

<p><b>Aiako Haitza aurrealdean eta Jaizkibel atzean, giro ederra izan duguna San Markora igotzean. Zein ederra den gure herria bertatik begiratzean!, a zer txaloak jendearenak Altzatarran ordaintzean!</b></p>	<p><b>Txokolatea bila badoa Pilartxo Elizondora, jaki gozoa erostearren ez baita joan edonora. Hodei ilunez buru gainean gaur joan gara Menditxora, burusoildunen gorengo maila etorri zaigu gogora.</b></p>	<p><b>Txoritokietarantz igotzean paisaia ikusgarria, ikus daiteke hor Haitzetako Txabala trikuharria. Antzinakoek dotore asko zeukaten zutik jarria, ekialderantz begiraturik jartzen zuten hilarria.</b></p>
--	--	---

**(2016-09-30)**

**(2017-09-01)**

**(2018-09-28)**

**Zamalbiderantz hemen gabiltza  
nagusi eta maizterra,  
Ramonek zentzu zuzena omen  
eta nik, berriz, okerra.  
“Entzun ezazu domoa ez da  
inolaz ere kraterra,  
eta gainera bihurtu dute  
oso izeidi ederra”.**

**(2018-09-28)**



**Taldea San Markoko begiratokian, Donostia eta Pasaia bizkarrean dutela**





**Txoritokietako gotorlekuan, atsedenaldi laburra egin eta abiatzeko prest**



**Txoritokietatik San Markoranzko bidea hartuko dute ibiltariek**

**Donostiako bost parketan zehar ibilaldia (2018-10-05)**

<p><b>Donostiako barnealdean baditugu parke franko, zuhaitzak eta belardi eder ez dira inoiz faltako. Garai batean Aietekoan ederki bizi zen Franco, halako leku zoragarrian nola egongo zen flako?</b></p>	<p><b>Leku ederraz hitz egitean Kontxa dugu mingainetan, gaur ikusi da edertasuna badela bere parketan. Zuhaitz horien gorritasuna sartu da barne-muinetan, leku hauexek izan daitezke lasaigarri nahigabetan</b></p>	<p><b>Gaurko egunak ez du inola udazkenaren tankera, ibiltariok baitaramagu orain udako janzkera. Jendeak ditu hiru hondartzak oso gustuko platera, nola bukatu bertso apal hau puskatu gabe joskera?</b></p>
---	---	---

(2015-09-27)

(2016-11-04)

(2018-10-05)



**Taldea Aieteko Munto tabernan, hamaiketakoaz gozatzen**

**Igeldo-Txakurtegia-Arratzain-Igara kanpina-Ibaeta (2018-10-19)**



**Arratzain mendia eta egun berean bost parketan zehar ibilitako taldea**

**Ibilbidean lanbroa dugu  
batetik eta bestetik,  
gure begiek ez dute ikusi  
ez itsaso ez herririk.  
Zuhaitz artean gorderik ote  
lamina edo jentilik?,  
irudimena landuaz goaz  
oihanaren bazterretik.**



**Santutxo-Santa Marina-Santa Ageda-Bidania (2018-10-26)**




**Bidania herriko plazan, talde osoa**

**Santa Marina leku ederra  
Albizturko inguruan,  
pena gaurkoan izan baitugu  
behe-laino inguruan.  
Txindoki ere hor aurrez aurre  
estaliz gure pausuan,  
bere irudi punta zorrotza  
gorderik dugu buruan.**

**Toki honetan senti gaitzke  
mundutik nahiko aparte,  
isiltasunak ez du mugarik  
bihotzean sartu arte.  
Pago artean ez da ikusten  
ez Tolosa ez Lasarte,  
hau eta hori ez ote dira  
gure munduko bi parte?**



**Santutxotik Santa Marinako bideko paisaia**



**Santa Marina auzoko eliza eta Santa Agedarako bidean ibiltariak**

**Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-San Lorenzo basiliza-Zumaia (2018-11-02)**



**San Lorenzo basilizaren aurrean talde osoa (argazkilaria izan ezik)**

<p><b>Txiki-txikitik harriak jasoz Ibañarrieta auzoan, harri handitan izan genuen hoberena luzaroan. Boxeolari bihurtu zuten ona izango zelakoan, gizagaixoa eroriko zen iruzurren erasoan.</b></p>	<p><b>Itsas lehoiak lagunak omen Argentinan ezagutu, han bortitzenak eme aurrean estaltzeko nagusitu. Etengabeko zirimirian jendea ez da damutu, Ibañarrietan aldapa gora aipatua ez da mutu.</b></p>	<p><b>Jende dezente hurbildu zaigu galdezka zer den Maluta, erantzun diot galdera batez non egin duzu zurruta? Argitze hauek egin daitezke hiztegiak lagunduta, muga estuak ditu buruak orain bainaiz aitonduta.</b></p>
---	---	--

(2017-02-17)

(2018-11-02)

(2018-11-02)



**Iraeta auzoan barrena, astigarrak bere unerik dotorenean ditugula**



**Bidean zeharreko landaredia eta behi begiluzea**



**Urtainek ospetsua egin zuen bere jaiotze-auzoa**

**Irun-Santiatgotxo-Guadalupe-Hondarribia (2018-11-09)**



**Hondarribiko Butroa pasealekua**





<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Santiagootik Guadalupera biboteduna beteta, bero handia baina itzalean izan genuen oreka. Jende guztia blai izerditan eta ni, berriz, herrenka, ba ote dago inguruetan benetan hainbat erreka?</p> <p>(2015-07-10)</p>	<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Noiz izango da gizonezkoa emakumeen adina?, non ote dauka ezkutaturik arterako jakin-mina? Jaizkibeleko magal honetan andrea dabil arina, gizona, berriz, tabernetan prest edateko txakolina.</p> <p>(2016-07-08)</p>	<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Erabakia hartu beharra non ote da Ardora? ezkerrekoa hartu ondoren iritsi gara Farora. Hamaiketako honetan behintzat gutxik joko du ardora, hezetasunak izerditurik gehiengook sagardora.</p> <p>(2017-07-14)</p>
<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Lauzpabost trago sagardo hartuz eraginik egarriak, gustura baina urdailarentzat izan ziren mingarriak. Bertsozaleak jende artean igaro ditu gorriak, autobusean zorabiatuak nolako une larriak!</p> <p>(2017-07-14)</p>	<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Ibiltariak aurkitu dute eroritako zuhaitza, eragozpena gaintuaz gain bidean bada lokatza. Guadalupeko ikuspegia izugarri aberatsa, baina gogoko dutena hauek Ardorara daramatza.</p> <p>(2018-11-09)</p>	<p><b><u>Irun-Santiagootxo-Guadalupe-Hondarribia</u></b></p> <p>Zenbait kasutan leku-izenetan ikus daiteke <i>ibia</i>, <i>Urdanibia</i>, <i>Hondarribia</i> eta <i>Astigarribia</i>. Behobia hor, <i>Mandubia</i> han <i>Zaldibia</i>, <i>Astibia</i>, hau desagertu eta ondoren azalduko da <i>zubia</i>.</p> <p>(2018-11-09)</p>

**Arditurri** (2018-11-16)



**Talde osoa Arditurriko bidean**

**Oiartzun-Arditurri-Oiartzun**

Hirurogeita hamabost lagun  
bidegorrian gabiltza,  
bazkariaren kontua ote  
arrakasta honen *giltza*?  
Tripa beterik nola bazuen  
mundu guztiak zer mintza,  
gupida gabe kendu diote  
batak besteari hitza.

(2015-10-30)

**ERDI AROA**

Arditurri Fuenteovejuna  
gauza berbera ote da?,  
horrela bada ibiltariok  
goazen denok batera.  
Garai batean jende xumeak  
erabiliz esaera,  
ezin hobeki azaldu zuen  
herri baten pentsaera.  
(2016-11-25)

**Oiartzun-Arditurri-Oiartzun**

Arditurriko bidegorriak  
atzeman gaitu obretan,  
arrisku handiz ibili gara  
errepide bazterretan.  
Txilibituak agertu dira  
sarritan gure ezpainetan,  
artalde gisa hartu gaituzte  
baina hainbat koloretan.  
(2017-11-17)

**Ibilbide bera**

Gaurko mintzagai osasuna da  
nola gabiltzan gustura,  
“zorioneko gizaki gara”  
etorri zaigu burura.  
Egun batean hau gogoratuz  
esanez “hura freskura,  
garai ederrak pasa ditugu  
bazter dezagun tristura”.

(2017-11-17)

**Oiartzun-Arditurri-Oiartzun**  
**ERROMATARREN GARAIA**

Erromatarrak meategian  
duela bi mila urte,  
gogo-gogotik aritu ziren  
guztia agortu arte.  
Agintariek morroi gaixoei  
gurdiak zilarrez bete!,  
abian jarri Oiaso alderantz  
helmuga hantxe baitute!

(2016-11-25)

**GAUR EGUNEKOA**

Garraibide honetan zehar  
giro ona nabarmena,  
berriketa bai baina jendeak  
Tolaren du nahi duena.  
Bidegorria utzi ondoren  
datorkigu atsedena,  
horrez gainera sagardo eta  
janarien gozamina.  
(2016-11-25)

**Ibilbide bera**

Gosaldu eta Ramon, Arruti  
hauek bai gizon argiak,  
gure buruan sartu dituzte  
dakizkiten historiak.  
Geroagoxe bertan ditugu  
eder asko ur-jauziak,  
naturazaleok esan diogu  
“Mentxu atera argazkiak”!  
(2017.11-17)

**Ibilbide bera**

Ba al da gauza ederragorik  
jendea pozik-irrika?  
abantailatu senti gaitzke  
ongi pentsatzen jarrita.  
Hirurogeitik gora guztiok  
hau ez badugu polita!  
goza ditzagun une guztiak  
etorkizuna gaur baita.

(2017-11-17)



**Arditurri gaineko basoan zehar**



**Pistatik kanpo jendea gusturago izadiaren barne-barnean**



**Beste harribi txikia zeharkatzen**



**Orbela zapaltzen udazkenean, Arditurri meategiaren gainean**

**Ibiltariok egingo gara  
bidegorriaren jabe,  
txirrindak nola pasako dira  
hona inor mindu gabe?  
Aiako Harria goiko aldean  
Pirineoko zutabe,  
sabel barneko orroak dio  
hortxe duzue Tolare!**

**Zumaia-Deba (2018-11-23)**



**Ibiltariok aterkia eskuan, baina ez zuen euririk egin ibilaldian zehar**

**Jaiki ondoren sumatu dugu  
ari zuela euria,  
hau ikusirik ohean sartu  
eta itzali argia.  
Hau da zenbaitek egin duena  
ongi pentsatzen jarria,  
hanha sartzea egin baitigu  
aparta eguraldia.**

**Zumaia-Deba barne aldean  
izan da ibilaldia,  
Done Jakue bide ertzean  
pinudi eta artadia.  
Hodei ilunak alde batean  
itsasaldea garbia,  
goiz honetako zeharkaldia  
guretzako oparia.**



**Akerrak erasokor eta oldarkor dirudi, baina ez zen horrelakoa, baketsua baizik**



**Itziartik Debarako bidean, itsaso bazterrak suma daitezke**



**Goitik behera begiratzuz, batek zerbait gehiago dela sentitzen du (apaizak pulpitotik bezala)**

**Eguraldia ezin hobea  
Izarraitz bistan da ere,  
belardi eder ardiz josita  
ondoan hainbat landare.  
Bidezidorra gezi horiaz  
horniturik txit dotore,  
Pilartxo ote agintaria  
edo Santi direttore?**

**(2016-02-19)**

**Zumaia-Deba (2018-11-30)**



**Atsedenaldian egindako argazkia**



**Lasarte-Txiki-erdi-Zubieta-San Esteban-Zubieta-Lasarte (2018-11-30)**



**San Esteban elizaren ondoan, talde osoa**



**San Estebaren elizaren aurrean, talde bera**



**Usurbilgo San Esteban auzoko arte zahar ederra**

**San Estebanen “Ogi zerutik”  
izan genuen kantua,  
eta pilota partidari, berriz,  
gerri gogorren kontua.  
Babarrun zuri edo arroza  
aukerako otordua,  
euskal kantuez amaituko zen  
huraxe giro sanua!!!**

**(2014-11-07)**

**Ibilaldian era birtualez  
gaur bete dute sabela,  
arrautzak eta patatak mahaian  
frijituak dituztela.  
Gero tortilla jatean inor  
ez baitzebilen motela,  
denon artean ez ote dugu  
hustu sagardo kupela?**

**(2015-11-20)**

**Ibiltariak gure atzetik  
lasai doaz berrikeretan,  
batak besteei kontatzen die  
zer egin zuen gaztetan.  
Hauek, ordea, erantzun gisa  
zer egin duzu zaharretan?  
berritsuena gehientsuetan  
isiltzen da aldapetan.**

**(2018-11-30)**

**Erraustegia, futbol zelaien  
inguruetan gabiltza,  
lanak egoki egin ditzaten  
jarri diete baldintza.  
Ongi ordaindu izaten baita  
jokalarien langintza,  
zalantzazkoa langileena  
nagusiak baitu giltza.**

**(2018-11-30)**